

LAMIAK EUSKALERIAN

I. Izenaren yatofia.—II. Lami-izendun tokiak gure artean.—III. ¿Lamiak Hebreotaŕen artean?—IV. Lamiaren izenak euskeraz.—V. Gure Lamiak.—VI. ¿Nolakoak ziran?—VII. Lamien artean *estudiante bilagoŕia*.—VIII. Lamien elestuna.—IX. Lami ofazi-zaleak.—X. Lami batzuk nola yaŕo diren.—XI. Lamizuloko gaztanbera.—XII. Lamiosiŕe.—XIII. Homeroren Mito bat eta gure Lamiak.—XIV. Gabonaria ta kurtzea.—XV. ¿Nola suntsitu (aienatu) zaizkigu Lamiak?—XVI. Ijito ta lamia-arteon.

I. Lamiaren izena Greziarena omenda. Beren Mitologian Frigiako Erregina zela diote, galanta eta edera. Zeus-ek (Erromaŕen Jupiter-ek) bere emazte egin zuelarik, lengo emazte Herak goŕotoz ta kuŕukaz beren seme-alaba guziak il zituen. Geroztik Lamiak atzeman ta arapa al zetzazkean aurak oro Erioiari zuzentzen zizkion. Ezta beraz arigarŕi Greziako antzelariak (artistak) Lamiak amuruzko begitarte ta sugebuztanez erakustea. Gure arteko Lamiak etziran oŕen gaizkinak, oŕen itsusiak ere ez: ugariak bai.

II. Toki askok dute Euskalerian beron izena.

Lamiako Bizkaian, Algortarondoan (1).

Lamiaran Mundaka-aldean.

Lamiari Biriaturko mendŕi bat, Lapurdin.

Lamiariaga Irungo luŕean, Enderlazan.

Lamiarieta toki askotan: 1.º

Ondarŕibiko arabi bat, 2.º

Baztanen, Arizkungo luŕean,

3.º Madotzen, Larraun-ibaŕean.

Lamiategi Oñatin.

Lamien lezea Zugafamurdiin *Lamiarietatzat*.

Lamiarŕita esan oi dute Baztandarak.

Lamikiz Markina-aldeko baxexxe bat.

Lamindano Afatiako auzo bat.

Laminarieta Bilbo-ondoko Galdakanon.

Lamiosin Ataungo Ayan.

Lamisin Berako efeka bat.

Lamiarazulo Anboton.

(1) *Labiano* Napafoan nonbait.

Bein, igaro den neguān, *Laminañi* zer oteden ya-kin nairik Galdakanoko Laminarieta ofetara yoan nintzan. Amonarik zařena nor zen galde egin ta bera-
rengana yo nuen. «Mainton, esan nion, beste zerbai-ten ondorean; Mainton ¿zer dira Laminariak?

—Eřekako atxak, jauna.

—¿Eta zegaitik etedauke izen ori?

—Antxe, atxetan, egoten zirean laminak uretati urtenda, ofaztu ta ofaztu.

—¿Zelangoak ziran eurak?

—Geřiti gora, emakume; geřiti bēra, arain.

Beste onenbeste egin nai izan zuen lentxeago nere adiskide batek, Oñati-ondoko Lamiategin, ofotari-aren emazteari galde au eginez:


—¿Zegaitik esaten dotsazue Lamiategi zuen etxe oni? Lamia ori zer eteda?

—Jauna ¿legamiña badaki zer dan? Urunari, ogi-xa egiteko, nastaten dotsagun orēa? Lamia be(re) auxe dala esan leike.

Lamiategi-yabeak, dakuskunez, eztaki bere onda-sunen beři.

Aintzinako Eřomařen *spelunca*, geroztikako lati-noen *cavea* edo *cova* ta erdaldunen *cueva* adieraz-
teko lau-bost itz ditu gure euskera zār onek: *atxulo* ta *koba* Bizkaian, *armazulo* Napařoan, *leizezulo* Gipuzkoan nonbait, *obi* arabar askok erderaz ere; eta gainera *Lamizulo* ta *Lamiazulo* Napařoako ibar askotan. Anbotoko dama entzutetsuaren yauregiak, inguru aietako baseřitarēn batzuri entzun diedanez, *Lamiñazulo* zuen bere izena.

III. Gaztetxo nintzalarik aste gurenez (santuz) ur-tero aritzen nintzan Jeremiasen erosta (lamentatio) bat apaizak oiukatu (kantatu) oi zutenean: *sed et lamiaē nudaverunt mammam, lactaverunt catulos suos*




Laminafieta (Galdakano)

(1) lamiak ere beren bularak biluztu ta umeai titfa ematen ziefen». Nere gurasoai maiz entzunez lamien beñi banekian. ¿Hebreotañen artean ere izan ziran beraz? Burua urdintzen asitakoan Biblia-adierazleren baten onezazko lana irakurñi nuen. Onek dionez, *Thannim* zuen izena Hebreotañen itsas-erensuge (dragoi) andi batek. San Jeronimok itz au, Greziañen *Lamia* artuz, itzuli zuenean, izurdea naiz balea adierazi nai izan omenzigun. Gure Duvoisin-ek ere, Biblia Lapurdiko euskalkiz itzultzean, euskerazko aztiak (adivinos), greziañen *pythones*, lamiatzat eman zizkigun. *Nec invenfatur... qui pythones consulat* «ez, bedi aurkhi... ez-eta laminei galdeka **hariko denik**» (Deut. XVIII-11).

IV. Euskalérian nonnai, len aipaturiko itzak darakuskutenez, izen bakaña zuten, greziañena bera. Gure egunetan Aezkoan eta beste Napar-ibar batzuetan *eilalamia* edo *áilelamia* deritzaie, Bizkaian *lamina* edo *lamiña* toki askotan, Benapañoako alde batzuetan ere *lamina*. ¿Nondikoa otedu *n* au Lamia-
ren izenak? Itz askotan *i* ta beste *vocal* bat alkartzean *n* bat sortzen da Bizkaiko euskalkian. Latinezko *processio*, *unctio*, *oratio*... eta abar gure ezpainetan *prozesino*, *untzino*, *orazino* edo *prozesiño*, *untziño* ta *oraziño* dira. Gipuzkoañen *Aitak dio* bizkaitar geienok *Aitak dino* edo *diño* ebaki oi degu. Beste alde askotako *demonioak demoniñoak* dira Elgoibartik onerontz; eta mendu gogordun gizonak Arátian ta Txorieñin *jeniño* itxaña daukate. Alde askotako *premiña* ta *apremiñatu* edo *apremiñau* erderazko antxinako «premia» ta «apremiar»-etik sortu zaizkigu. «Por ti salió el pueblo de la *premia* mortal» irakurtzen

(1) *Thren.* IV-3.



Lamiategi (Oñate)

dugu Gonzalo de Berceo-ren lan batean (Loores 216). Onelaxe *Lamia* ere *Lamiña* egin zaigula uste dut.

V. Gure Lamiak etzuten inolaz ere erensuge edo dragoi-antzik. Emakumetxo oñazi-zale, mintzura (voz) mêt-mêdun omenziran ta gainera uretan maiz ibiltze-koak. Añatian Igoñeko aguretxo batek bein esan zidan ez «laminak argia agotik egiten euen». Beñizko atsotxo batek, Magdalena Bilbatuak, beste bein bere Amak lamiak noizbait ikusi zituela yakinarazi zidan. «Zelangoak ziran bada lamiñok?» galde egin nioñean «arek, erantzun zuen, arek garondoan (buru-atzean) ogerleko zabalaren taiukoa, beste ulerik ez-euken; eta beti etxerik etxe ta beti oñazi-bila ibiltzen zirean». Elantxoben lamiak begi-bakañak ziran; greziaren Kyklops (Cíclopes) aiek bezela, bekokiaren erdian zuten beren begi bakar aundi biribil ori. Napañean beñi geixeago bildu nituen. Lañauen norbaitek, ala eztakit Aezkoan otezen «buluxkofi ibiltzen zirala» esan zidan. Arnegiko seme batek *Lamien pikua* non-tsu zen edo den erakutsi zidan bein. «Arnegitik Lu-zaidera bidean da, ekartzen ditu pikua, bainan nihork ezta hartarik yaten». «Oilañak kantatu-artio ibiltzen zire Eilalamiak; oilañak kantatu-ondoan, sorginak». Aezkoan yakin nuen beñi au.

Menéndez Pelayo-ren *Heterodoxos españoles* deritzaion liburu entzutetsuak, bere itzaurñean, Lamiak aipatzen ditu; eta dio Lamiak, ibiltzean, oinatz (rastros) biribila uzten zutela.

VI. Lamiak zer ziren nolabait ikusi dugu. ¿Nola-koa otezen, ordea, beren egikizuna? Ijitoen antzera aiek ere egun emen ta biar an bizi izatekoak oteziren? Eztut uste. Auen antzeko esku-luzeak ziren ere ezta gure ezagutzera eldu. Toki guzietan bizikera berdina zeukaten ere eztakigu. Nonnai oñazi-zale zirena bai;



Lamiategiko osiña (Oñate)

ezne-zale ta urin (mantequilla) yale zirena ere badakigu ta nonbait gizonen bat senartzat artu nai izan zutela ere nere belafietara eldu da.

VII. ¿Beste zertarako nai otezuten Aezkoako *estudiante bilagoña*? Ona emen Aezkoan bertan, Abaurépe deritzaion basauritxoan, mutil onezaz edatsi (kontatu) zidatena. «Martxoko ilabetean etxetik abreen edanáztera *estudiante* bat atra ze. Edangiotik (Aezkoan *edangio* erdaldunen «abrevadero» da) edangiotik itzulita etxera eldu zenean, beldurtu ze, eilalamiak arapatuko otezuten; eta bāitzakie oilarāk kantatu ezkeroz eilalamiak etzakikiola eskua ezāri, erān zue: *Martxoko oilara jotoi! balia dakidala*. Oilarāk ordu berean kantatu zue ta eilalamiak, asaře gořitan suturik, erān zue: *Madarikatuko altzaio oilar ori mia, orengatik galdu baitut estudiante bilagoña*.

VIII. Anboto-aldeko lamien *istoria* txiki bat yakinarazi zidaten bein Otzandianoko urian. «Anboto ta Arangioren bitarteko atxetan mutil bat artzain ibilten zan. Noizēan bein lamiñak urteten eutsen. Guztiak dāntzan aidēan erabilten eben. Bera pozik. Batek etxeragiño laguntzen eutsan ta alkarēgaz ezkontzeko egiunēa (kontratua) egin eben. Lamiñēak gomutagaritzat atxikarēan elestun bat ipini eutsan. Etxera badoa mutil ori ta «*Ama*, esan eutsan etxandererēari, *Ama*: ezkondu edo zerbait geuk be oingotan egin bēar dogu.


—¿Nogaz, mutil?

—Neskatīla eder bategaz. Basora etorten dāt bera.

—¿Geiagoko bārik ezkondu?

—Bai, *Ama*.

Ama ori auzuneko abadeagaz itundutera yoan zan ta mutilari be beste ainbeste eragin eutsan. Oni elizgizonak burubide auxe emon eutsan: «*Begiratuiook neskatīla ofi anketara, ea zelangoak daukazan*».



Lamiärieta (Baztan)

Mutilak urango egunëan, emaztegeiagaz egonda gero, abadëagana yo ebanean «paita-ankak daukaz» esaeran, «atzera emoiok elestuna» erabagi eban abadëak.

Badoa mutiĭa ta lamiñëa agertu ðakonëan elestun ori emon nai ta ezin atara ebilen. Azkenëan atz txikia ebagi ta zapla yaurfi eutsan elestun ta guzi. Atzetik yaraitu eutsan lagunak. Ogera yoan zan mutiĭa ta geiago etzan yagi.

IX. Oren bildurgaĭi etziran lamia oġazi-zaleak. Orain esango dudan ipui txikitxo au Laġaungoa da, Baraibaġen ikasia. Len aipatu bezela, eġitxo artako koba edo atxuloak ere Lamiazulo du izena. «An oġaziäk biġätu ta etxera eraman zituin Arangoko alabak. Eta gabean leiora etofitä Lamiäk eġan zion: Iñaxi Mañaxi ġnon don nere buruko oġaxi? Ogi apur-apur, Iñaxi lapur».

Euskaltzain urgazle Baehġek Legazpi aldean onen antzeko beste ipuintxo bat entzun du, beste itz batzuen artean poliġ au duen ipuina: *azkuzi*. Erderazko «familia» ofeden dio berak.

Andra Gerazi:

*ezpadezu azaltzen nere ofazi,
galdu zera zu ta zure azkuzi.*

—Zer da *azkuzi*?

—Familie da *azkuzi* ori.

Itz auek esan zizkion amonatxoa orain bi urte il omenzen. Aurten Baehġek berak *azkazi* entzun dio Ataungo bereko gizon zar bafi. Geroxeago erakutsia izango da onek edatsitako ipuin *Lamiosinë*.

Eusko Folk-lore ardurapean artua duen nere adis-kide Barandiaranek ere *askazi* entzun du *azkuzi*-ren ordez. Nere iztegian Napaġoa ta Zuberoko *askazi* erderazko «pariente» bezela ageri da. Otzandianon ere itz

ori entzun dut, baina beste bi zentzun onezaz: «siente» ta gainera «doctrina, enfeñanza». Iztegia argitafatuta gero uri oretan berean erderazko «casta» bezela entzun dut.

Lamiak orazi-bila ibiltzen zirela Bizkaiko uri batzuetan orain ere badiote: Eñgoifin, Gernikan, Galdakanon eta beste askotan. Azken eñi orietako Lamiak urézko oraziak erabiltzen zituzten. Napañoan ere bai nonbait. Ona emen Bidasoa-ondoko Beran edatsi (kontatu) zidatena. Ango bereko ebakeraz irakuñiko dut. «*Lamiak eta Lamisingo eréka*. Lenbíziko etxia Portúla da. Arát yoán zen Lamía eta erán zión etxéko andriari. ¿Nón dun neré urézko oráxe edéra? Ezpáldin badíran emáñen, kendúko diñát armáiu, alásia ta baztéra. (Uri artan *baztefa* erderazko «la finca» da). Eta eráñen zúten fikí-fikíak ziréla Lamiak eta aúñak bezálako mintzáidxia zutéla».

X. ¿Entzun otedezute, inoiz, jaunak, ijito bakar bat mundura medikuen eskuetan agertu oteden? Nik ez. Lamiak, ordea, noizbait beinik bein, beren arteko-
ren batek argitara lamiatxo beñi bat ekañi bear zuela ta emaginari dei egin zioten. Aezkoa-ibañean ikasi nuen orain emango dudan beñi au:

«Abaurepean eilalami bat fan ze emagin bila eta berekin erman (eraman)-aazi zue. Bidean zoazen bezala eilalamiak emaginari erán zako: *Beira, saritako etzanala eskatu txarantxa baizik. Bertze zernái ezkatzen badun, ikatz itzuliko dun. Etxera itzultzean eztezanala gibela begiratu*. Eñota-baltsara eñegatu zirenean ura lekutu ta bidea idortu zue eilalamiak eta biak ituñi-begiko zilora sartu zire. (1) Emagina bere

(1) Emagin onek angó beñirik ezpidezuen edatsi (kontatu). Nere irakasle andreak etzekian beintzat lamia ark bere aña azteko auntzik naiz ardirik inudeztat eraman otezuen, erditze-minak andiak izan oteziren... deus etzekian.

txarantxareki etxera itzuli ze ta etxera sartzean ataria ersteko aurpegia itzuli bear zue; ta orduan aitzukaldia (1) norbaitetik xaurtiki zako ta ariak atarian zilo andi bat egin zue. Zilo gartarik geroko urte anitzetan gatuak eta txakurkoak, eilalamien beldurik gabe, goiz-arats ebiltzen zire».

Etzidaten esan txarantxa hura emaginak zertarako izan zuen. Beste zertzelada edo goraberarik ere etzidaten eman. San Migel Aralarkoaren inguruko lamia batek ere, emagina lagun zuela, aua argitara edo beintzat erékaren bateko uretara ekañi zuen. Alde artako uritxo Yabañen eman zizkidaten berri auk. «Lamizuloko bat emainez beartu zen (2). Bat eñira yoan zen emain-bila. Etzuen emainak alako yendetara yoan nai. Aiek ere yendeak zirala ta yoateko. Yoan zenean esan zioten: *andik gero ez deusik atera*. Ederki libratu zen. Emainak ogi-puxko bat artu zuen, etxean probatzeko. Ogi ori zeukalako, etziteken atra zulo artatik. Gero esan zioten zerbait bazukela. Berak uka, ezetz.

—¿Nola ezin atara aiz emendik?

Orduan ogia zeukala esan zuen. Gero ogi osoa eman zioten. Eta gauza eder anitz erakutsiz *nauena* (3) *esleji zan* esan zioten. Ta urezko txarantxa (4) esleitu zuen. Ubeldean (5) pasatu bear zuten. Lamiak aurretik abartxo batez plast yo zuen ura ubeldera eltzean ta legor gelditu zen. *Gero ez atzera begiratu*. Andre ofek ubeldea legor otezegon (ikusteko) atzera begiratu zuen ta txarantxaren erdia lamizulo artara yoan zekion.

(1) Afikada bat esan nai du.

(2) Erderaz, *una habitante de cueva tuvo necesidad de partera*.

(3) Nai dunana aua zan.

(4) Erderaz «rastrillo». ¡Bail emaginari dei egiteko etzan lamia hura, edonor: aberats andiren bat, enura gabe.

(5) Ibaian, ugaldean.

XI. Onetariko izateak gure aldean asmalari andi ta burutsu ta zûr ta yakintsu ta argiak direla edozeinek uste izan lezake. Alabaina eriak aintzinatik gordeak dauzkan istorio-mistorioetan ikus dezake, ordea, gure artean bezela Lamien artean ere burutik burura alde andia, batengandik beste batzuingana goi-bê ageria dagoela. *Lamizuloko gaztanbera* izentzat duen gertakari bat (edo gertakaritzako bat) erakutsi zidan Ultzamako Alkotz deritzaion urixkoan apaiz batek. «Ultzaman Añaitz deitzen den erian armalzulo (1) andi bat da. Zulo ortan lamiäk hizi omen ziren. Sunbilenea deitzen den eixeko artzaiä gauero udaberian zulo aren ailtzinetik igarotzen zen, abatz bete gaztanbera buruan zuela. Eta lamiak ateratzen zaizkion eta pixko-(b)at ematen zien eta orekin pozik gelditzen ziren. Eta aldi batez eran zioten kaiku bete gaztanbera ekañiko ziela, lami guziäk yan zezaten (2)».

Eta eran ta egin, biramonean kaiku bete an utzirik, lasterka bere etxera itzuli zen. Lamiak pozez beterik asi ziren yaten eta bereala arkitu zuten gainean gaztanbera pixko at zuela eta azpiän altxirä (3). Engañatu zituela ikusi zutenean, gibeletik yaraiki zioten eta Añaitzean sartzean ia ia añapatzera zidoaienean gauzko amabiak yo zuten eta eran zioten: *beañik yo dik ordue, bertzenaz galduä intzen*.

XII. LAMIOSINE (4). Ataungo Juan Migel Agiré deritzaion gizon eldu batek edatsi dio gure lankide Baehri ipuin au: «Sagastegiko idik sorôn lanên ai ziela bero aundikin itelbik jo zifün, eta eren buruz

(1) Kôba.

(2) Ultzamako euskeraz *gaztanbera* ezta erderazko «requesón» gure artean bezela, «cujada» baizik.

(3) Arkorotza, erderaz «cagarruta».

(4) Ataun'en datza osin au, Sagastegi deritzaion etxearen bêko aldean, efegebide-ondoan.

etsiik eŕekaa saltatu zien eren arêkin; eta arên ortzakin buruko ilêtatik arapatu zoen Lamiosinên lamie eta eraman zoen Sagastegira arastaka eta etzôn bein ere itzik eifen (1)... eta pensatu zoen gau batên esne egosten surtan paratuta danak okulura jun bear zoela eta esnea egosi zanên Lamik ots ein (e)men zôn: *Txurie gora dijie* (2); eta etxetik atera ta igesi jun zan eta orâzik âztu zitzezan. Eta etofi zan gero gauên eta ots ein zion:

Andra Gerazi:
ekatzu nere orâzi,
bestela galduko ditut nik
zu ta zure azkazi (3).

Eta gero andra Gerazik ari ezin eman eskura, gaitze berari egiteko bildurêz. Eta konfesorêgana jun zan esatera nola etortzen zitzezan eta ze ingo otezôn. Eta (konfessoreak) esan zion txara bat atarîn zutik sartzeko eta aren punta pitzau eta orâzik paratzeko, eta zetoŕenên esateko txaran puntan an zerela ta artu zitzela.


Ta ala eramân ziŕûn Lamik. Txara ure bi pitz einda utzi emen zôn.

XIII. Homeroren ipui(n) bat eta gure Lamiak. Homerok bere Odisean dioskunez, gizurena (protagonista) amabi gizon lagun zituela Begi biribildunen eŕira, *Ciclopes*-enera, eldu zan. Bizitokitizat arzuloak (kobak) zituzten alde aietan. Onetariko arzulo bat arkitu zuten utsik eta gaua an igarotzeko ustez sartu ziran Ulises ta bidaideak. Ilun nabaŕean zuloko jauna âritalde ta guztî toki artantxê sartu zan. Arkaitz batez saŕerako unea itxita sua egiten asi zan. Gaŕen argita-

(1) Uŕsune onetan, etxekoak Lamiaren beŕi jakin nai zutela esan izango zuten antxinakoak.

(2) Esnea gora dijoa.

(3) Bera ta ondorengok esan nai omendu azkazi onek.



Lamiosin (Afaun)

sunean bizilagun beñiak ikusi zituen ta itz egiten asi zan. Bere boza entzute utsez izutu ziran amairu greziar aiek. Beren eske ta galdeai ez entzun eginez beren arteko bi il ta yan zituen. Urango goizean beste bi il ta yan ta iretsiz, arkaitz andia atetzat utzirik, arizain mendi-aldera yoan zan. Ulises ta lagunak beren buruak nola gordeko zituen erabaki nairik luzaro ari izan ziran gogoketan eta izketan. Begi bakardun Eráldoiak (giganteak) iluntzean beñiz bareneratu zanean, beste bi gizon il ta sabeleratu zituen. Aseta zegoela ikusirik, Ulises auferatu zitzaion, besapean zaragi bete ardo on zuela eta andik edanarazi ere bai.

—¿Zer izen duk? galde egin zion Ulisesi.

—Nik «*outis*» erantzun zion eráldoiak. Greziarren *outis* ta erderazko «nadie» bat dira.

—Outis: esan zion orduan besteak: i azkenean yango aut, guziak garbitu ta gero i. Auxe izango duk nere esker onaren ezaugaria».


Mozkorik lo gelditu zan. Besteak aldeauréz gertua zeukaten taket gogor bat sutan goritu ta begi baka-rean barna sartu zioten Orditzarari. Garasika ta maraskaz yeiki zan au ta bereala beste kyklops (Begi-biribil) batzuk sartuz, galde au egin zioten: *nork egin dik?*

—*Outisek* (erderazko «nadie»).

Inork ezpaldin bau zauritu, eramaitzak orduan egoariz (pazientziaz) ire naigabe ta oñaze oriek».

Eta au esanez beren zuloetara alde egin zuten kyklops etori-beñi aiek».

Markina-ondoan euskeraz ikasi duen Eskoziar batek bere liburu *The basque dialect of Marquina-n* LAMINEK deritzaion irakurkizun bat dakar. Liburu onezaz luze-samar eta ipuin ortaz laburxko Eusko Ikaskuntza-ren *Revista Internacional*-en (tom. XVI.



Lamiako (Lejona)

pág. 568) itz egin nuen. Mister Rollo-k Markina-aldean bildu zuena bezelatsukoa da nik lengo urtean Luzaiden ikasiriko Lamia-ipuina.

«Etxe batean txamineitik (tximiniatik) laminak yausten (jexten) ziren iruten ari zen-emazteki baten-gana, au eřanez: *urin-prox, urin-prox*. (Arto-orez ta urinez—mantequillaz—nasturiko zerbait omenda *urin-prox* au). A(r)ats guziez ala yausten ziren. Egun batez bere senarari etxeko andreak eřan zakon: *Laminek etxeko urin guzia yaten a(r)i dazkiate*.—Senarak: *ago, niau yařiko nun gaur iruten. Ařanyatuko (d)inat bai nik lamina ori*. Eta emazteain eřepak yauntziz iruten yaři zen. Beti bezala a(r)ats artan ere lamina txamineitik beiti yautsi zen eta iruleak beste a(r)atsetan bezala iruten etzuela oartuz, eřan zakon: *Bertze a(r)atsetan firin-firin a(r)itzen intzan, gaur fařan-fařan a(r)i iz*.

—*Barda lihua ninan, gaur istupa.*

—*¿Hik zer dun izena?*

—*Nik niaun buru.*

—*Niaun buru; niaun buru: bea zan. Urin-prox, urin-prox.*

Zartainan urina (e)zaři ziin berotzen eta irakitzen ari zelarik be(g)itartera aurtiki zakon iruleak laminari. Mařaskaz igan zen lamina orduan txamineiari goiti. Gero lagunak atera zitzaikon, au eřanez: *¿Nork xer ein daun?*

—*Ni niaun buruk, niaun buruk.*

—*Ařen (pues) ¿nork xer oben du?*

Eta geroztik etxe artara laminak etziran geiago itzuli».

Argiagotu dezagun ipui(n)txo au. Homero ren Mito artan arako Ullisesek, Kiklops (cíclope) giza-yalea taket gori batez itsutu zuen Ullisesek, *Outis* erderazko

«Nadie» zuen izena. Fañan-fañan aria iruten zuen gizon emakume yantziak «Nadie» oñen ordez «Yo mismo» artu zuen izentzat: euskalkiren batean *nihaur*, besteren batzuetan *nerau... niaun buru... neu*.

—*Eroñek eroñen burua eñe badun, or konpon*, esanda alde egin zioten Lamia deadartiari bere lagunak.

XIV. Lamiengandik burua gordetzeko urin irakin au baiño geiagotan beste gordebide (medios de defensa) batzuk erabiltzen zituzten lenagoko euskaldunak: biderik ezagunenak gabonaria ta kurutzea ziran.

Lenagoko euskaldun auk orain mila, bi, iru mila sei mila urte, Basondoko bizilagunen batzuk oteziran? Neronek ere ezagutu ditut beren buruak Lamiengandik gabonariz gordetzen zituztenak... ¿Zer zan gabonari au? Bizkaieraz *Gabon* du Gipuzkoako *Egubeñik* bere izena. Egubeñi-goizaldean iruten zen-ari ortarakoak zuen Bizkaian izen ori: gabonari. Neronen etxean, nere aurzaroan, gertaturiko zerbañt, arira edo egoki datoñenez geroz, emen edatsiko dut. Nere amaren ama, Eñigoñtiko alaba, Mikaelatxu Eñigoñtiko, gorulari zan eta gainera Lamien bildurti andia. Egubeñi-goizean goizik, ez berak bakañik, bere iloba (nere añeba) gaztetxo biri, bakoitzari linai bana geñian sartuz, ekin ta ekin aria irun-arazten zien. ¿Nerau ere aurzaroan gabonarizko atoña (alkandora) soinean nuela ibilia otenaiz? Baditeke. Onezaz gainera gure laratz-ondoan ezta ãntzi amonak berak edatsi (kontatu) riko alkañizketa, Lamien alkañizketa au. Bermeotik Mundakara bidean aldape andidun aran bat, zelai bat, dago: Lamiaran du izena. Gizaldi beñiko Mundaka-Bermeotarañi *Lamidxaran* entzun diet esaten. Nere Ama ta asaben ezpainetan Lamiaran zan izen au. Andoainen eta Astigaragan ijitoak duten antzera, lamiak toki onetan

berentzako auzotegi osoa zutela soma ta nabari ditek. Tokiaren izenak somâraziko ezpaligu, alkar-izketa onek ezkaitu zalantzan utziko. Bein Lamiaranen barna gizon bat bidez zijoan. Itsasondoan Erosape deritzaion zubitxo-ondoko latsean (erekan) ere Lamiak bizi ziran; eta aietako batek gizon bidezti hura ikusita, uluka ta garasiz itz auek esan zizkion goialdeko lagun bati:

—*A Lamiarangöa!*

—*Zer gura dona, Erosapeköa?* erantzun zion Lamiarandik lagunak.

—*Or döan oferi bota eidxona lakiridxöa.*

—*Zelan botako dotsanat lakiridxöa?* GABONARIZ egina dâroiâna soiñeköa.

Onetxen antz-antzekoa da Murelagan (Lekeitiotik Gernikarako bidezarean) bi Lamiak izan zuten autua:


¡O karatxeköa!—Zer nai dona, Arlabangöa?—Or bidëan datořen gizon ofi ipini eiona lakiöa—Berofen emaztëak ipiñita dâukana ofek gabonaria ta apiöa».

Lamien aurkako (kontrako) beste gordebidea kurutzeaz, toki batzuetan beintzat. Ona emen Aratian ikasi nuen zerbait.

«Lamindanoko auzotegiän etsandereak labasuä egiten eragoion (1). Bitartean bere alaba gaztetxo bat negar ta negar egoan atean. Amak asafe gofitän esan euän orduän: *eztago plagarik bere, ume ori orti kendumo dauenik*. Isildu zän orduän umea. Gauetz etzan ume ori agiri. Ama yo tä su bere bilä ebilen. Etzan argitu. Etseko mutiko batek andi zortzi bat urtera umea, bere afabea, Lamindanoko arzuloan ikusten euän, geienean oraztuten. Inor ikusten euänean kobarra sartzen eizän.

Bein Estarta eritxon misioneru andiä Dimära ekaři

(1) Ari zan.



Lamiaran (Bermeo)

euen ta beragana itun (kontseju) ta burubide-eske agertu zān Lamindanoko etsanderea (1). Plagea aitātu ta beste bagarik umea galdu ñakola ta areik arakoak yakin arazo eutsazan fraileari emakumeak. *Urango labaldian zazpi ogi egizuz, zazpigarrena kurutzadura; ta zazpirok kobaurétxoan itxi, zeuek nonbait ostenduta zagozela*: izān zan fraile onaren burubidea. Senara lagun euāla yoan zan ama ori kobara, zazpi ogiäk besapean eroanaz. Euräk inguruko sasi-ondoan ostendu zireaneko, neskatoak, euren neskatoak soloti urtenda, ogiäk bapanan eroan zituzān. Zazpigarrena, kurutzedunā, kaltzerpean artu euānean, ezin sartu izān zan koban ta orduāntxe aitak eta amak etsera eroan euen. Erdi gitxirenduta egoan neskatoa.

—¿Zer egin don, neskato, zortzi urte andi onetan?

—*Amaren berbea beteten egon naz* erantzun eutsān neskatoak bere Aitāri.

XV. ¿Gure egun auetan Lamiarik? Gure egun auetako atsorik zārenari ere etzaio entzuten Lamiak ikusi dituenik. Lenago bai, bazirala; bainan oso suntsitu (aienatu) zaizkigula diote. Onetan guziak daude ainbatean. ¿Nola suntsitu zaizkigu ordea? Erizkizun (kuestio) onezaz bi aburu, bi uste edo eritzi entzun dizkiot eñari: sakontasunean, sinesgaritasunean, su-traitu izatean biak berdinak Bata ikasmen onen asieran aipaturiko Madalen Beriztararen ustea da. Arako «beti etxerik etxe ta beti orazi-bila ibilten zirean» esan zidanean «¿ezaldira orain ibilten? ¿Zegaitik ez orain?» galde egin nion. Eta berak: «ona emen, jauna, zer yazo dan. Aita santuari arek kentzeko zerbait eskatu eutsen. Asentsio-letañak emon ebazan Aita santuak eta añezkero ezta bat azaltzen».

Laminañietako Maintonek ere auxe uste du.

(1) Etxeko andrea.

—Aik, esan zidan orain iru ilebete, aik alboratu-teko (*alboratu* erderazko «expulsar» bezela esaten zuen) letañak imini zituezan. Santantoirra ta Asentsiorra yoaten zirean emen letañakaz.

Bigarren eritzia Aratiar batena da. Tamalez (lastimaz) bere izena nere paper zâretan ezta ageri. Igoñe edo Yurê deritzaion basaurikoa zala bai ta onetarako ipui(n) polit auxe (azken ipuina) eman zidana ere bai, badakit. Onelaxe edatsi zidan:

«Aratiako Igoñen, Garamendi deritxon etse baten, gizon aaaandi bät, itzäla (1), Txilibristo eritxona bizi zän. Indarétan beukän, indarétan! ¡Jesus, Mariä ta Jose! Urkusun gora Garamendirä burdiä lepoan eroaten euän ta kontuäk atara. Erékondo baten orazi bät, lamin-oraziä äurkifu euän bein eta kolkoan sartufä äurera yoan gure Txilibristo. Laminä batek esan eutsän:

*Txilibristo, ekazu oraziä;
ezpabere nik egingo dot zure biziä.*

Txilibristok Laminea saputzeti oratufä etsera, Garamendirä, eroan euän. Laminä au beste guziäk légez ezne-zale utsä zan. Egunäk eta egunäk igaro ñakiezan etsekoai, baitufä euken-pisti areri ezer eraso (esan-arazi) ezinik. Mutuä zirudiän. Bein, bera sutondoan egoala, eznea mazkeluän (pertzatxoan) iräkiten asi zän. Lamiäk, eznea alpeñik galdu ezeitëan, berba egiteari emon eutsän, auxe zinoala: *txuriä gora, txuriä gora*. Etsekoak orduän berba geiagö eragitaren, gogor artu eudien. Batek lamiäk zelan galdu eitekezan preguntäu eutsän. Auxe erantzun euän: *Doniangoizean yaioriko zekor nabar bi iteileaz (goldeaz) érekan ibilitä, galduko litekez lamiäk.*

(1) Izugafia.

Auzorik auzo beingo baten zabaldu zirean lamia-
ren berba onek; eta Añatiäko gorta (okulu) guztiäk
arakatu (registrar) eudiezan Donian-goizerako zekor
nabar bilä. Ganeko egunetan soloko zokiläk äusten
baizen gogoz eragoioen (ari ziran) zekořok iteilea
eřeketan nařaz erabilela, lamiäk uxätu nairik.

Ordura-ezketino ezta inguru äretan laminärik battxu
bére arean, azaldu».

Ipuin onen aldakuntze labur bat *Eusko Folk-lore*
deritzaion liburuan (1921-urtekoan, 96-gařen ořial-
dean) irakur diteke.

XVI. Lantxo onen amaitzat nere makaltasun bat-
en beři emango dizutet. Iztegia egiteko arazo ta
buruauste ta anka-jasotze andiak artu bear izan nitu-
enean, enuen kemenik izan ijito-artean sartu ta ijito-
euskalkia beren ezpainetatik ikasten asteko. Beın,
ořegatik (baina liburu hura argitaratu ta gero), Bilbo-
inguruko Basurton beren artera uřeratuz, amabi bat
urteko nexkato batekin izketan asi nintzan. *Ea non-
goa zen (Bayonaldekoa, erantzun zidan)—Ze izen
zuen (Izena äntzi dut)—¿Oni nola esaten diořute?
(Sunguřa, erantzun zidan)*. Ijitoen ezpainetatik ez
tut besterik ezertxo ere nere urte ugari auetan ikäsi:
suduřa ijitoeraz.

Lamiak suntsitu ta aienatuak, ezereztuak direla
diote. ¿Ezoteda or lamineřekaren batean, gizakirik
bizi ezten basamorturen batean, ezoteda bat edo bes-
tetxo gelditu? Entzule zaituztedanon artean euskalza-
lerik adinbat mendigoizale ezotezerate? Neronen sus-
motxo au egiazkoa baldin bada, lamineřeka-zale ere
egin zaitetze ta ořelako toki bakar biderik ere ez
tuen batera yoan ta geřitik gora emakume ta geřitik
bëra ařain den izaki bat ikusi dezazutenean, zatozte
nere-gana beři ori ematera. Ijitoenganako izan enuen ke-

mena nere biotzean dudala eta sakelean bost-sei bat orazi artuta, zuekin batean erekatxo ortara yoango naiz. ¡Ori bai! Zuek eta nerau, au eginez, afixkutxo batean yari gindezke, orain laurogei bat urte Francisque Michel-ek bere burua ikusi zuen ariskuaren antzekoan. Yakitun onek, beronen lan entzutetsu *Histoire des races maudites de France et d'Espagne* burutu al izateko, Agoten artean (Baztan-aldean noski) sartu zuen bere burua. Erikoak gizon ile-gofi begi-urdirin hura, Agoten enda edo askazi zaia ta oiturak ikasten ain alegintsu ikustean, bera ere Agoten ondorengoa zela uste izan zuten. Guregatik ere, Lamien egitsariak (hazañas) eta bizikera ta bizitokiak ikertzen ikusita ezotelukete bat edo batzuk esango: *Lamien odol-zuridunak dirudite gizonok*. Onelarik ere ezkenioke lanari utziko. Garizuma-erdiko goizeon erakutsi dizutetan ikastetxo au egun artantxe asita osoago atera al izango nuke.

Bilbon, 7-II-1926.

R. M. AZKUE.

Donostian 14-II-1926'an irakufitako lana.
